



KIROLENE BERRIA LANDAKON ERAIKIKO DUTE

Kirolene ikastetxe publikoaren eraikin berria Durangoko Landakon eraikiko dute, Arripausueta auzuneko etxebizitza berrien eta Open gimnasioa zenaren arteko orubean. Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak atzo eman zituzten azalpenak, egoitza eraikiko den orubean / 20

Durangoko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, atzo, Landakon.

JAEDek aurreikuspen guztiak gainditu ditu Gabonetako kanpaina solidarioan

la 77.000 errifa salduta, errekorra ezarri dute. Elkarteak elkartasunari eustera deitu du / 4



Iker Trigo aukera berrien bila joan da Galiziako Vigo-Rias Baixas taldera / 21

Sindikatuak elkarretaratzea egin dute Zornotzako Boroako enpresa parkean lan heriotza salatzen / 6



BERRIZKO JAIK 2025 / 13

Aitor Etxartek San Agustinen aurkeztuko du 'Eros', sarrera guztiak salduta / 18



Fidel Aranbarri Amorebietako lehenengo bazkideak eta Uxue Azkuenaga harrobiko jokalaririk gazteenak igo zuten mendeurrenako bandera. SDA

Zornotzarrekin batera ospatzeko mendeurrena

SD Amorebietak ehun urte egin ditu urtea hastegaz batera. Urtarrilaren 4an, kluba sortu zen egun berean, efemeridea gogoratu zuten. Urritxeko ekitaldia hasiera besterik ez da eta urte osorako egitaraua prestatu dute

Joseba Derteano ZORNOTZA

Azken urteetan, Amorebieta futbol klubeko zaleek une historiko bat baino gehiago bizi izan dute, bost urteren barruan birritan —2021ean eta 2023an— igo baitira Bigarren Mailara. Baina 2025a hastegaz batera hasi duten ospakizun berria orain arteko bereziena da, kirol lorpenetatik haratago doalako. Klubak ehun urte bete ditu. Iragan eta oraina lotuko dituen ospakizuna izango da eta herri osora zabaltzeko asmoa dute.

SD Amorebietak urtarrilaren 4an bete zituen 100 urte. Klubak goiz osoko jai bategaz ospatu zuten efemeridea, baina ospakizuna ez da egun bakarrera mugatuko. Mendeurrenaren harira, egitaraua zabala antolatuko dute. Izaera herrikoia izango duen ospakizuna izango dela nabarmendu zuten Jon Larrea klubeko presidentea, Urritxeko ekitaldian. "Ospakizuna 'zaletasuna' eta 'emozioa' lako berberkin lotu gura dugu. Horre-

gaitik, mendeurrena osatuko duten ekitaldiei izaera herrikoia, amateurra eta hunkigarria eman gura izan diegu", azaldu zuen.

Urtean zehar, Amorebietaren urteurrena presente egongo da Zornotzan tradizio handia duten hainbat ekimenetan. Esaterako, Karmen jaietan. Marmitako lehiaketa egiten den egun berean, Amorebietaren familia batzea helburu duen bazkaria herrikoia egingo dute. Haizetara jaialdia eta Enrike Renteria pintura lehiaketa dira beste adibide bi. Lehenengoan, sari bat emango diote klubaren ereserkiaren bertsiorik onena egiten duenari, eta, bigarrenean, mendeurrena gaitzat hartuta egindako artelanik onena sarituko dute.

Urritxeko ekimena

Urtarrilaren 4ko jaiegunak hainbat osagai izan zuten. Eguna txistularien erritmora hasi zuten, herrigunea Urritxe futbol zelaiagaz lotu zuten kalejira batez. Zelaira heldurikoan, Fidel

Aranbarri klubeko lehenengo bazkideak eta Uxue Azkuenaga harrobiko jokalaririk gazteenak mendeurrenako bandera altxatu zuten, bertaratutako guztien txalo artean. Tomas Ondarrak diseinaturiko logoa Urritxeko sarreran goratuta egongo da urtea amaitu arte.

Ondoren, Garazi Ibarretxe, Amaia Gallastegi, Maddi Aurenentxe eta Naroa Iturrioz ber-

"EKITALDIEI IZAERA HERRIKOIA, AMATEURRA ETA HUNKIGARRIA EMAN GURA DIEGU"

URTEURRENA PRESENTE EGONGO DA ZORNOTZAN TRADIZIO HANDIA DUTEN HAINBAT EKIMENETAN

tsolariek hainbat bertso kantatu zuten urteurrenaren harira. Segidan, Jon Larrea presidentea berba egin zuen. Klubaren historiari errepaso txiki bat egin zion lehenengo. 1925ean sortu zenean, SD Amorebietak bere aterkipean hainbat kirol hartzen zuela gogoratu zuen, hala nola alpinismoa, txirringularitza, atletismoa eta pilota. Gerora, bakoitzak bere bidea hartu zuen, baina gaur egun ere "erakunde lagunak" izaten jarraitzen dute. "Horiei guztiei kirola eta kirolaren balioak bultzatzen egindako lana aitortu gura diet", azpimarratu zuen Larreak.

SDAko presidentea, halaber, kluba handi egiteko euren aletxo ipini duten pertsona guztien lana eta konpromisoa nabarmendu zituen. Berba horiei jarraituz hasi zen, beharbada, ekitaldiko unerik hunkigarriena: hil diren guztien omenez, Jou Gonzalez musikari zornotzarre klubeko ereserkia interpretatu zuen saxoagaz.

Bestalde, Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea SD Amorebietaren balioak goraiatu zituen eta "2025a gogoratzeko urtea izan dadila" desiratu zuen.

Azkenik, ekitaldiak SD Amorebietako presidente ohi bi batu zituen: Luis Brizuela eta Josean Barreiro. Bi horien eta bertaratu ezin izan zen Joseba Barrenetxearen omenez, aurrerakua dantzatu zuten jai egunari amaiera emateko.

Urtea osoan iraungo duen egitaraua

Urtarrila

- Urtarrilaren 30ean, ONCEn zozketako kupoiak SD Amorebieta klubaren mendeurrena gogoratuko du

Ekaina

- Ekainaren 1etik 30era, klubaren ehun urteko historia laburbiltzen duen irudien eta objektuen erakusketa zabalduko dute Zelaieta Zentroan.
- Haizetaran kaleko banden lehiaketan, klubak sari berezi bat emango dio bere ereserkiaren bertsiorik onenari.

Uztaila

- Uztailaren 19an, herriko jaietako marmitako lehiaketaren barruan, herri bazkaria egingo dute. Bertan, egungo eta iraganeko bazkide, jokalarik, entrenatzaile, zuzendari eta zale guztiek parte hartu ahal izango dute.
- Sociedad Artístico Cultural Zornotzak antolatzen duen Enrike Renteria pintura lehiaketako Zintzilic modalitatean, Amorebietaren mendeurrenaren inspiratutako artelanik onenaren saria banatuko dute.

Denboraldiaurrea

- Amorebietak eta Athleticeko lehenengo taldeak mendeurrenako partidua jokatu dute.

Abendua

- Urtean zehar Amorebietaren historiari buruzko dokumental bat landuko dute. Azken emaitza abenduaren 11n, 12an, 13an eta 14an eskainiko dute, Zornotza Aretoan.



Amorebietako zaleak kalejiran, Urritxera bidean, urteurreneko banderagaz . SDA



Dantzarien saioa, mendeurreneko banderaren aurrean. SDA



Jou Gonzalezen saioa. SDA



Kalejira jendetsua izan zen. SDA



Urtarrilaren 4ko ospakizun eguneko protagonisten familia argazkia. SDA



Luis Brizuela eta Jose Barreiro klubeko presidente ohiak, Jon Larreagaz. SDA



Garazi Ibarretxe, Naroa Iturrioz, Amaia Gallastegi eta Maddi Aurtenetxe bertsolarien saioa. SDA

JAEDek inoiz baino txartel gehiago saldu du

Elkartek 76.999 zozketa txartel salduta zarratu du Gabon hauetako stand solidarioa: "Oso pozik gaude eta Durangaldeko herritar guztiak eskertu gura ditugu emandako babesagaitik", esan dute. Zozketako Renault Clio autoa 47.616 zenbakiak irabazi du

Ekaitz Herrera DURANGO

JAED elkarteko kideek Gabon hauetako kanpainaren balantzea egin dute. "Oso pozik" daude emaitzagaz, eta "Durangaldeko herritar guztiak" eskertu dituzte proiektuari etengabe emandako babesagaitik. Izan ere, ez da gutxiagorako. Elkarteko kideek 76.999 zozketa txartel saldu dituzte urteko azken asteetan Durangoko Andra Mariko standean; inoiz baino gehiago. Eta aurreikuspen guztiak gainditu dituzte, ipinitako helburuak atzean utzita: 70.000 txartel saltzeko erronka hartu zuten eta ia 77.000 saldu dituzte. Edozelan ere, kanpaina arrakastatsua izan arren, elkartasunez jokatzeko jarraitzera deitu dute elkartetik.

Urtero legez, elkarteko kideek urtarrilaren 6an egin zuten sarien zozketa. Sari nagusia, Renault Clio Techno TCE90 autoa, 47.616 zenbakiarentzat izan da. Zozkatu dituzten gainerako artean, bidaiak, Apple gailuak,



Sarien zozketa urtarrilaren 6an egin zuten.

Samsung ordenagailu eraman-garriak, gitarra elektrikoa eta urdaiazpiko iberikoa egon dira. Aurten, elkarteak 34.000 euro inbertitu ditu sariak erosteko; Durangoko eta Iurretako establezimenduek ere hainbat ekar-

pen egin dute. JAED elkarteak 71 urte daramatza beharrezana duten herritarrekin lan soziala garatzen. Besteak beste, Elikagaien Bankuko hornigaiak banatzen dituzte beharrezana dutenen artean.

Zozketa solidarioko emaitzak

JAEDek urtarrilaren 6an egin zuten sarien zozketa. Honako zenbaki hauek dira sarituak:

1) 47616	26) 53171
2) 34755	27) 71716
3) 29196	28) 44373
4) 49086	29) 03053
5) 20014	30) 21440
6) 66926	31) 02564
7) 66968	32) 04331
8) 46289	33) 25086
9) 23021	34) 15446
10) 17543	35) 38363
11) 31691	36) 10108
12) 39543	37) 23792
13) 23005	38) 23217
14) 26785	39) 68054
15) 53241	40) 76796
16) 74532	41) 39749
17) 22455	42) 15342
18) 35527	43) 26695
19) 42966	44) 40670
20) 14390	45) 21021
21) 02342	46) 42944
22) 13358	47) 40041
23) 50774	48) 73427
24) 53806	49) 05714
25) 60323	50) 73678

Lan Eskaintza Publikoa Durangoko Udalean

Eskaintzan administraritza, biltegizaintza, iturgintza, segurtasuna eta kulturegintza plazak daude

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Lan Eskaintza Publikoa (LEP) zabaldu du enplegu publikoaren behin-behinekotasuna jaisteko helburuz. Prozesua "inklusiboa eta interesdun gutzientzako irisgarria" izango dela aurreratu du udalak, eta, zehaztu duenez, txanda irekiko zein barne-sustapeneko lanpostuak kontuan hartuko dituzte. Txanda irekiari dagokionez, honako plaza hauek eskainiko dituzte: administrari plaza bi, biltegizain plaza bat, iturgin ofizial plaza bat, herritarren segurtasunerako agenteen lau plaza eta Astarloa Kulturegintzarako langile plaza bat. Barne-sustapeneko plazei dagokionez, udalak plaza bat zehaztu du Zerbitzu Berezien azpieskalako langileordearentzat. LEP eskaintzagaz, udaleko lanpostuen behin-behinekotasuna jaisteko norabidea hartu gura du udalak. Langileen behin-behinekotasuna %6 baino txikiagoa izatea gura dute.

Zamalanetarako gune berriak ipini dituzte San Fauston

Banaketa-ibilgailuek espaloiak modu desegokian erabiltzea saihestu gura du Durangoko Udalak



Kamioientzako eta furgonetentzako geralekuak ipini dituzte. DURANGOKO UDALA

Basauri DURANGO

San Faustoko auzo elkarteak egindako eskariari erantzunez, Durangoko Udalak zamalanak egiteko gune berriak ipini ditu auzoan. Horrela, "banaketa-ibilgailuek espaloiak modu desegokian erabiltzea" saihestu gura du udalak, eta, bide batez, auzoko "irisgarritasuna eta bizikidetzat hobetzea".

Durangoko udal brigadak duela gutxi egin ditu lanak, eta berariazko guneak prestatu ditu furgonetak eta kamioiak aparkatzeko.

Esku-hartze horregaz, udalak "auzoetako beharrezanez erantzuteko konpromisoa" berretsi du. Era berean, eskerrak eman dizkie San Faustoko bizilagunei, eta eremu atundu berriaren erabilera egokia egitea eskatu die auzotarrei.



DURANGOKO UDALA

Luisa Santos Guinaldok 100 urte

Urtea hasteagaz batera, urtarrilaren 1ean, Luisa Santos Guinaldo durangarrak mendeurrena bete zuen. Familiagaz batera ospatu zuen egun berezia, merezitako moduan. Durangoko herritarren izenean, Mireia Elkoroiribe alkateak eta Josune Escota zinegotziak lore sorta batez zoriendu zuten herrikidea.



Argi-foku bat Durangoko kaleetan. DURANGOKO UDALA

Udalerriko argiteria guztia aldatuko dute Durangon

Udalak aurrean hasiko ditu lanak. Efizientzia energetikoa eta jasangarritasuna bultzatu gura dituela azaldu du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak herriko argiteria osoa berritzeko prozesua hasiko du aurrean, energiaren efizientzia hobetzeko, instalazioen funtzionamendu egokia bermatzeko eta jasangarritasuna sustatzeko helburuz. Horretarako, enpresa baten esku utziko du argiteria publikoko instalazioen erabilera. Azken honek hainbat betebeharrak izango ditu. Horien artean egongo dira argiteria publikoagaz eta Gabonetako argiekin lotutako erosketak, kontratuak eta kudeaketa egitea, argien mantentze prebentiboa eta konponketak, argiak LED

teknologiara eguneratzea eta jarduketak bermatzen direla ziurtatzeko kanpo-ikuskapena.

Udalak hamar urteko kontratua egingo du enpresagaz; guztira, 7.745.000 euroko kopurua-gaz. Lehiaketa publikora aurkeztu gura duten enpresek otsailaren 11ra arteko epea izango dute proposamenak aurkezteko. Erabaki honeguz, Durangoko Udalak "herritarren eta bisitarien segurtasuna eta ongizatea" hobetuko direla azaldu du. Era berean, proiektuak "herritarren eskari historiko bati" erantzuten diola gaineratu du.



Durangoko Udaleko osoko bilkuren aretoa. DURANGOKO UDALA

Teknologia berria udal aretoan

Durangoko Udalak aktak bideo bidez jasotzeko sistema, mikrofono automatikoak, kanal anitzeko aldibereko itzulpen sistema eta multimedia pantaila ipini ditu osoko bilkuren aretoan. Hobekuntzok Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz egin dituzte.



Durangoko Etxeratik eta Ezker Abertzaleak urtarrilaren 3an egin zuten barikuetako azken elkarretaratzea.

Amaiera 30 urteotako asteroko elkarretaratzeei

Durangoko Etxeratik eta Ezker Abertzaleak 30 urte egin dituzte barikuro-barikuro euskal presoaren eta iheslariaren eskubideen aldeko elkarretaratzeak antolatzen. Orain, Sarek hile bakoitzeko azken barikuetan antolatzen dituen kontzentrazioetan jarriko dute indarra

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Etxeratik eta Ezker Abertzaleak ziklo bat zarratu dute: amaiera eman diete hiru hamarkadatan barikuro-barikuro euskal presoaren eskubideen alde antolaturiko elkarretaratzei. "Euskal preso, iheslari eta deportatuaren egoerak hobera" egin duela eta hartu dute erabakia, eta aurrera begirako aurreikuspenak "baikorrak" direla gaineratu dute. "Presoen kolektiboaren erdia modu batean edo bestean kalea zapaltzen dabil, eta Frantzia betetako urteen legediaren kontuagaz aurreikuspena oso baikorra da datozen hileei begira", adierazi dute. Edozelan ere, Etxeraten eta Ez-

ker Abertzalearen esanetan, egoera berriaren aurrean "asana hartzeak" ez du esan gura "atseden" hartuko dutenik: "Salbuespen legediak indarrean jarraitzen du eta azken errepre-saliatua etxeratu arte ez dugu etsiko", adierazi dute. Alde horretatik, Sarek hilabete bakoitzeko azken barikuetan antolatzen dituen elkarretaratzeetan ipiniko dute indarra, baita bestelako egitasmoetan ere, hala nola "Etxera Egunean, 40 Minutu Rocken, berbaldietan eta eskualdeko kanpainetan". Urtarrilaren 18an lan saio bat egingo dute Ibaizabal ikastolan, aurrera begirakoak aztertzeko. Era berean, urtarrilaren 11ri

begira, Sarek Bilbon egingo duen mobilizazioan parte hartzera deitu dute. Manifestazioa Casillatik irtengo da, 17:00etan, *Behin Betiko* lelopean. Bestalde, elkarretaratzeen antolatzaileek azken 30 urteotan bizitakoak gogoratu dituzte: kartzeletara preso bi-sitan joandakoen istripuak, presoaren gaixotasunak eta zigorrak, baita heriotzak ere.

Guillermo Merino, aske

Etxeratik jakinarazi duenez, Guillermo Merino preso durangarra guztiz aske geratu da kondena osoa bete eta gero. Merinok 24 urteko espetxe zigorra bete du. 2000an atxilotu zuten, Basaurin.

Olazarko txapeldunak

Joseba Derteano ZALDIBAR

Abenduaren 31n Etorikizuneko Olazar Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren. Lau eta erdiko final biak orekatuak izan ziren. Emakumeetan Zabaletak 22-18 irabazi zion Salsamendiri, eta gizonetan Etxeberriak 22-20 Rekalderi. Binaka, Fernandez eta Loza erraz nagusitu ziren Egigurenen eta Landaren aurka: 22-6.



ZALDIBARKO UDALA

Elkarretaratzea Boroako lan heriotza salatzen

LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde eta Hiru sindikatuek deituta, eguaztenean elkarretaratzea egin zuten Zornotzako Boroa enpresa parkean; abenduaren 30ean I.P.C 41 urteko langilea hil zen Forest Traffic enpresan, bertan beharrez zebilela

A. M. ZORNOTZA

LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde eta HIRU sindikatuek elkarretaratze bateratua egin zuten eguaztenean Zornotzako Boroa enpresa parkean, bertan dagoen Forest Traffic enpresan abenduaren 30ean izandako lan heriotza salatzen; egun hartan, I.P.C 41 urteko langilea hil zen enpresan, beharrez zebilela; langilea inbentario lanak egiten zebilen biltegiaren, orga jasotzaile batean, eta garraiatzen zebilen zamaren zati bat gainera jausi zitzaion; LAB sindikatuen esanetan, "ezagutzen ez dituen arrazoiengaitik".

LAB sindikatuak "ikerketazorrotza" eskatu du gertakariak argitzeko, eta "kasutik eratorri daitezkeen erantzukizunak argitzeko". Horrez gainera, 2015ean ere enpresa berean beste langile bat hil zela gogoratu du; kasu hartan, pieza baten kolpearen eraginez hil zen langilea.



Eguaztenean egin zuten elkarretaratzea.

64 heriotza 2024an

LABen esanetan, amaitu berri den urtea "tragikoa" izan da lan istripuei dagokienez. "Gutxienez, 64 langile hil dira eta lan istripuak ugaritu egin dira; 2023an 100.000 lan istripu baino gehia-

go komunikatu ziren eta horien erdiek egun bat baino gehiago bajak eragin zituzten", azaldu dute ohar baten bitartez. "Kontrol neurriak gehitu behar dira lan osasun araudia betetzeko", azaldu du LABek.

Lagun bik 'Kipula lasterketa' erronka egin dute Berrizen

Erronkak Markel Etxaniz sukaldaria eta Mikel Aguado kirolaria parez pare ipini zituen urtarrilaren 5ean



Mikel Aguado eta Markel Etxaniz.

Ekaitz Herrera BERRIZ

Sukaldari bat korrikalari baten aurka. Posible ote? Berrizen egin dute. Afari baten bueltan sortu zen ideia. Markel Etxaniz sukaldaria eta Mikel Aguado kirolaria 'Kipula Lasterketa'-n lehiatu ziren urtarrilaren 5ean. Korrikalariak egin beharreko proba Andikoatik Hormastegi baserrira korrika jaitsi eta bueltan Andikoa igo (hiru kilometro eta egundoko aldatsa), eta sukaldariak egin beharrekoa hamabost kilo kipula juliana eran moztu. Ea nork lehenago amaitu bota zioten eupada elkarri. Jokoan, denon afaria ordaintzea. Etxanizek 00:13:28ko denboran txikitu zuen kipula, eta Agudok 00:16:30 behar izan zituen korrikaldirako. Horrenbestez, Agudok ordaindu zuen kuadrilla bientzako afaria.



Pintadak ere agertu dira gaztetxean.

Matrailu gaztetxera lapurretan sartu direla salatu dute

Zornotzako Matrailu gaztetxeko kideek eraikinera lapurretan sartu direla salatu dute aste honetan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Matrailu gaztetxeko kideek eraikinera lapurretan sartu direla salatu dute. "Gaztetxeko kristalak eta leihoak apurtu dituzte, baina itxura batean ez dute baliozko ezer eraman", azaldu dute bertako kideek. Azken egunetan gaztetxean bertan eta Zornotzako kaleetan pintada faxistak agertu direla ere salatu dute. "Badira hile batzuk Zornotzako kaleetan sinbologia faxista agertzen zela, eta oraingoan gaztetxea seinatu dute", gehitu dute. 'Viva España' edo 'Feminazirik

ez dugu nahi' bezalako mezuak agertu dira, besteak beste. Lapurreta asteburuan egin zuten eta pintadak astelehenetik martitzenerako gauean egin zituzten. "Erasoen aurrean gogor eta tinko; gure espazioetan ez dago lekurik ideia erreazionarioentzat", nabarmendu dute gaztetxeko kideek.

Erantzunean, auzolana

Bestalde, domekarako, hilak 12, auzolana antolatu dute lapurretaren kalteak konpontzeko; 10:00etan hasiko dituzte, eta ondoren luntxa egingo dute.

Elorrioko tailer literarioetan izena emateko epea, zabalik

Udalak sormen laborategia antolatu du nerabeentzat; Miren Amurizak eta Amaia Egidazuk dinamizatuko dute

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak sormen tailerra antolatu du hamabi urtetik gorako nerabeentzat. "DBHko ikasleei zuzenduta, idazketaren, irudigintzaren eta irakurketaren bitartez partaideek sorkuntza propioa garatzeko baliabideak jasoko dituzte, ariketa jostagarrien bitartez orri zuriari beldurra kentzeko helburuagaz", azaldu du udalak ohar batean. Tailerrak bost saio izango ditu eta Miren Amuriza berriztarrak eta Amaia Egidazu durangarrak dinamizatuko dituzte. Amurizak

hainbat literatura lan argitaratu du eta azkenaldian gazte literatura jorratzen aritu da. Egidazuk, bestalde, Etxepare saria jaso zuen 2021ean, *Doroeta* lanagaitik. Urtarrilaren 13an hasita, astelehen birik behin egingo dituzte saioak, ordu eta erdikoak, 17:00etatik 18:30era bitartean.

Izena emateko epea zabalik dago eta interesa dutenek Iturri kultur etxera joan daitezke edo 946 032 032 telefonora deitu edo liburutegia@elorrio.eus helbidera idatzi dezakete.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza



HELBURUAK

Ikasle eleanitz,
kritiko eta
euskaldunak



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.



ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA

Urtarrilak 25ean 11:00etan

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 3tik 13ra



Goitondo auzoko geltokia berriztea, proiektu nagusia

Mallabiko Udalak 2025eko udal aurrekontuak onartu zituen abendu amaieran, EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz. Mallabiko Udalak 2.598.700 euroko aurrekontua izango du urte honetarako

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko Udalak 2025eko udal aurrekontua onartu zuen abendu amaieran, 2.598.700 eurokoa. "Aurrekontu honen helburua udalerriko garapen iraunkorra sustatzea eta bizi kalitatea hobetzea da", azaldu zuten udal arduradunek.

2025eko inbertsioei dagokienez, honako hauek dira nagusiak: alde batetik, Goitondoko autobus geltokia berriztea eta hobetzea; lan honek 110.000 euroko diru partida izango du. Bestetik, LHIK-ko aparkalekuaren irisgarritasuna hobetzea (30.000 euro), frontoiko gimnasioko klimatizazioa hobetuko duen itxitura egitea (46.000 euro), eta udal lurretan dauden eguzki plaken energia kudeatzeko etxola bat instalatzea (30.000 euro), besteak beste. Era berean, aurrekontuan hiri garbiketarako eta hondakinen kudeaketarako partidak handitu dituztela ere azaldu zuten Mallabiko Udaletik,



Goitondoko autobus geltokia.

prentsa ohar baten bitartez. Hiri-garbiketarako, 60.360 euro erabiliko dituzte, eta hondakinen kudeaketarako, 109.210 euro.

"Aurrekontu hauek herritarren beharrezanean erantzuteko eta Mallabiko garapena sustatzeko

diseinatu dira, eta aurreikusitako proiektuek, bizi kalitatea hobetzeaz gainera, udalerrira leku jasangarriagoa, irisgarriagoa eta erakargarriagoa izatea dute helburu", adierazi zuten Igor Agirre Mallabiko alkateak.



Apraiz optikako arduradunak eta Eurne Maguregi udal ordezkaria (erdian).

Federópticos Apraiz nagusi Abadiñoako erakusleho lehiaketan

Abadiñoako Merkatarik Elkartek udalaren laguntzagaz antolatu du bigarren erakusleho lehiaketa

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoako Merkatarik Elkartek, udalaren laguntzagaz, Gabonetako bigarren erakusleho lehiaketa egin zuen abenduan.

Lehenengo saria Federópticos Apraiz optikak irabazi du. Lorea Iriondoren eta Maite Iriondoren optikak 500 euroko saria irabazi du erosketari txarteletan. Erakusleho lehiaketako bigarren saria Miren Itziar Sanchez Robles farmaziak irabazi du. Farmaziak 350 euroko saria irabazi du, hau ere erosketari txarteletan.

Horrez gainera, Abadiñoako Merkatarik Elkartek antolatu

duen txapelketa honetan 350 euro zozkatu dituzte herritarren artean.

"Eskerririk asko lehiaketan parte hartu duzuen herritar guztioi, eta zorionak saria irabazi duzuenoi", azaldu dute udaleko iturriek sare sozialetan.

**BIGARREN SARIA
MIREN ITZIAR
SANCHEZ ROBLES
FARMAZIAK IRABAZI
DUELA IRAGARRI DUTE**

Errelebo aldaketa Abadiñoako Abarketeruena tabernan

Abadiñoako tabernarik enblematikoenetariko batek bere ibilbideari amaiera eman zion abendu amaieran

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Instituzio bat. Horixe izan da Abarketeruena Abadiñon. Taberna eta jatetxe bat baino askoz ere gehiago: elkargune, konfiantza eremu eta herriko ikur. "Herritarrentzako etxe bat", Ana eta Aitziber Urizar ahizpen ahotan. Eta ez da harriztekoa. Bost bat hamarkadatan Abadiñoako makina bat otorduren eta jairen bidelagun izan dira eta Abarketeruena Ana, Aitziber, Isi, Ibai eta gainerako langileak. Bai garai bateko kokalekuan zeudenean (Zeletabe kalean),

baita azken hamar urteotakoan ere (Txanporta plazan). Lantaldoko kideek abenduaren 28an eman zuten azken puntada. Herritarrekin, giro sanoan, hunkidura dosi handi batez eta urte hauetan guztietan erakutsi duten eran, jo eta su lanean. "Egia esan, oso pozik gaude. Bizi osoa daramagu ostalaritzan, eta atsedenaldira hartzeko momentua ailegatu zaigu", azaldu zioten ANBOTOri Ana eta Aitziber Urizar ahizpek.

Nostalgikoenek Abarketeruena zaharra, garai batekoa, izan-

go dute beharbada gomutan. "Gure gurasoak hona etorri zirenerako, jatetxeak Abarketeruena izena zuen, seguruenik bertan abarketagileren bat egongo zelako lehendik. Gure gurasoak Arrazolatik Abadiñora lekualdatu zirenean, jatetxea izateaz gainera, establezimenduak ile-apaindegia, denda, pentua erosteko lekua eta bizartegia ere bazituen", gogoratu dute Urizar ahizpek. Anak 9 urte zituen aita-amek negozioaren ardura hartu zutenean; Aitziber ahizpa geroago jaio zen, bertan. Urte hauetan guztietan, ondo egindako lanaren fruitua jaso dute familiako kideek.

Abarketeruena abendu amaieran ateak zarratu zituen arren, taberna berriro zabalik dago urtarrilaren 2tik, arduradun berri batez.



Aitziber, Ibai eta Ana, Abarketeruena tabernako kideak.

Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea**

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

URTARRILEKO ZOZKETAK



Euskaraldiko materiala. Kamiseta beltza (haurrak) eta Elkar mugituz egingo dugu lelodun poltsa.



Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Atxondori buruzko liburua eskolako umeen eskutik


Eskolako lehenengo zikloko ikasleek sorturiko liburuak herrian dauden askotariko zerbitzuak eta establezimenduak deskribatzen ditu. Horrez gainera, herriko auzoei, demografiari eta inguruko mendiei buruzko informazioa ere jasotzen du

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Eskolako Lehen Zikloko ikasleek euren herriari buruzko informazio zehatza biltzen duen liburu bat sortu dute. Liburuan zehar, sortaile txikiek Atxondoko demografiari, auzoei eta udalerrira inguratzen duten mendiei buruzko datuak ematen dituzte, eta naturagaz duten lotura nabarmendu. Gainera, liburuak herrian dauden askotariko zerbitzu eta establezimenduak deskribatzen ditu, hala nola bertako tabernak, jatetxeak eta dendak. Herriko bizitzaren ikuspegi osoa ematen dute horrela. Ekimenaren bitartez, umeen artean sormena eta talde-lana sustatzeaz gainera, haien komunitateagazko lotura indartu dute.

Euskarri digitalean

Esperientzia osatzeko, liburua euskarri digitalean eskuratu daiteke, QR kode baten bitartez. Kasu honetan, audio liburu bat



Atxondoko denda eta zerbitzuei buruzko informazioa ageri da liburuan.

**LIBURUKO
INFORMAZIOA UMEEN
AHOTSETIK JASOTZEN
DUEN AUDIOLIBURU
BAT ERE SORTU DUTE**

da eta umeek eurek kontaktzen dute liburuan agertzen den informazioa. Liburuak Atxondoko eskolako webgunean ipini dute, Lehen Zikloari buruzko atalean. Atxondoko Udaleko webgunean ere badago, QR kode eta guzti.

**Izurtzako udalbatzak
behin-behinean
onartu du HAPOa**

J.D. IZURTZA

Hainbat urteko ibilbidearen ondoren, abenduko udalbatzarrean behin-behinean onartu zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria Izurtzan. Aho batez onartu zuten, Gobernu Taldearen (EH Bildu) eta EAJren artean. Udaleko arkitektoak emendakinei buruzko azalpenak eman zituen udalbatzarrean, eta "alegaziorik gehienak, osorik ez bada, zatirik garrantzitsuenean" onartu zituztela azaldu zuen.

Orain Aldundira bidaliko dute txostena. Izan ere, Aldundiak eman beharko dio behin betiko onespina. Azken urrats hori gainditzen duenean sartuko da indarrean HAPOa.

**Garazi Etxebarriak zinegotzi
kargua hartu du Mañarian**

Garazi Etxebarriak "ilusioz eta lan egiteko gogoz" hartu du Endika Fernandezek utzitako kargua

J.D. MAÑARIA

Endika Fernandez Amestik zinegotzi kargua utzi zuen azaroko udalbatzarrean. Fernandez 2023ko ekainean sartu zen zinegotzi, eta orain arte Ogasuneko Batzordeburu lanak egin ditu eta Urkiolako Parke Naturaleko organoan ordezkari legez aritu da.

Fernandezen ordez, Garazi Etxebarria Bizkarrak hartuko du kargua. Fernandezek "zortetik onena" opa dio zinegotzi berriari, eta Etxebarriak kargua "ilusioz eta lan egiteko gogoz" hartuko duela adierazi du. Etxe-

barriak abenduko bilkuran hartu zuen kargua, Mañariko Udalak ohar batean zehaztu duenez.



Garazi Etxebarria.

Mariasun Landaren obra ezagutzeko gonbita

Iurretako Herri Bibliotekak Mariasun Landa idazlearenganako esker oneko jardunaldiak antolatu ditu. Urtarrilean zehar hainbat ekitaldi egingo dute idazlearen obra ezagutarazteko; urtarrilaren 23rako idazlea bera gonbidatu dute

A. Basauri IURRETA

"Iurretako herriak, bere bibliotekaren begietatik, zenbait lore ikusten ditu. Lore koloretsuak dira, basatiak, zein baino zein eder eta ezberdinagoak. Lore horietariko asko landa batean hazten dira, Mariasunenean, bere askatasun sortzailean, bere begiradaren izpigorrian, bizitzarekiko bere lotura berezian". Iurretako Herri Bibliotekak berba horiekin eman du Mariasun Landa idazlearenganako esker oneko literatur jardunaldien berri. Urtarrilerako hainbat ekitaldi prestatu dute Landak haur eta gazte literaturan egindako lana ezagutarazteko eta egileari eske-



Mariasun Landa idazlea Iurretan izango da. MARIASUN LANDA

rrak emateko. Besteak beste, idazleak berak solasaldia egingo du, Peru Magdalenak gidatuta. Urtarrilaren 23an izango da, 18:30ean.

Bibliotekak ohiko egitaraua egokituko du Mariasun Landaren ondare literarioa ezagutarazteko eta idazlearen "emankortasun literarioa" jaso duten liburuen-gaitik eskerrak emateko. Landaren liburuak, haren "irakurzale-tasunaren defentsa" eta "duintasun askea" nabarmendu dituzte. "Denok dugu krokodilo bat ohe azpian, eta beste zenbait mamu lagun. Horiei guztiei maitasunez begiratzen erakutsi diguzu. Ez da gutxi gurearen moduko herri txiki batentzat", esan dute.

Zazpi idazle

Iurretako bibliotekak 2017an antolatu zuen esker oneko lehenengo literatur jardunaldia. Orduan, Joseba Sarrionandiaren lana aitortu eta eskertu zuen bibliotekak. Harrezkero, Gloria Fuertes, Leire Bilbao, Astrid Lindgren, Joxeantonio Ormazabal eta Lewis Carroll idazleen lana ezagutzeko aukera eskaini dute.

Egitaraua

Urtarrilean zehar

- Bibliotekak eskolari eskaintako irakurle klub guztietan HH2-LH6 Mariasun Landaren *Txan fantasma* liburua landuko da.

Urtarrilak 15

- **17:00** *Iholdi* (LH3)
 - **18:00** *Iholdi* (LH4)
- Irakurle kluba, Peru Magdalenak dinamizatuta.

Urtarrilak 22

- **17:00** *Txan Fantasma* (LH5).
 - **18:00** *Txan Fantasma* (LH6).
- Irakurle kluba, Peru Magdalenak dinamizatuta.

Urtarrilak 23

- **18:30** Mariasun Landarekin berbaldia. Peru Magdalenak gidatuta. Izena eman behar da.

Urtarrilak 27-30

- Mariasun Landaren ilustrazio tailerra: LH3tik LH6ra arteko ikasleentzat.

Urtarrilak 31


- **18:00** Haurrentzako ipuin kontalaria: 'Taxia paradisura' (4 urtetik gorako umeentzat heldu batek lagunduta).
- **19:00** Helduentzako ahozko narrazioa: 'Taxia paradisura' (Mireia Delgado). Izena eman behar da.

Elixosteko lanak hasiko dituzte Otxandion

Udalak 250.959 milioi euro erabiliko ditu Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektuaren lehenengo faseko lanetarako

A.B. OTXANDIO

Otxandion, datozen asteetan hasiko dituzte Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektuaren lehenengo faseko obrak. Hain zuzen ere, Sorginestrada kalea eta zine zaharreko orubetik Ospital kalerainoko tartea urbanizatuko dute. Bestalde, zine zaharreko orubean egingo dituzten hamar etxebizitza dotazioaletara oinarrizko instalazioak eramango dituzte. Urbanizatze lanak amaitzeko, lau hilabete beharko dira, eta 250.959 euroko inbertsioa eskatuko dute, udal arduradunek jakinarazi dutenez. Udalak Ekin Eraikin enpresari lizitatu zizkion lanak, joan zen urrian.



Zine zaharreko orubea.

Gazteek alokairuan hartzeko etxebizitzak izango dira zine zaharraren orubean eraikiko

dituztenak. Eusko Jaurlaritzak eraikiko ditu (1.818.000 euro) eta eraikinaren beheko solairua Otxandioko Udalaren esku geratuko da, etorkizunean ambulatorio berria eraikitzeko bertan. Halaxe jasotzen du administrazio biek joan zen ekainean sinatu zuten zine zaharreko orubearen lagapen hitzarmenak. Lanak uda honetan hastea aurreikusitako dute.

Etxebizitza Sailak etxebizitzak eraiki ondoren hasiko du udalak Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak urbanizatze proiektuaren bigarren fasea. Orduan ekingo diote ambulatorio berria egokitze egitasmoari ere, udal arduradunek azaldu dutenez.



IAZKO ERREMATA.

Errematarako hitzordua Garain

Datorren barikuan, urtarrilak 17, San Anton eguneko erremata tradizionala egingo dute Garain. Enkantea 12:00etako meza amaitu eta gero hasiko da, Elizabarrin. Eguraldiak laguntzen badu, elizpean egingo dute; bestela, eliza barruan. Antton Mari Aldekoa-Otalorak Garaiko harmoniouma joko du meza girotzeko. Erremata Lazaro Milikuak gidatuko du.



Bernat Vidal, Durangoko Udaleko ordezkariak.

Bernat Vidal omendu dute, Arbason egindako lanagaitik

Durangoko Udalak omenaldia egin zion kargua utzi berri duen Arbason elkarteko presidenteari, Bernat Vidali

M.Z. DURANGO
Abendu amaieran Durangoko Udalak omenaldia egin zion Bernat Vidali, 29 urteko dedikazioaren ondoren Arbason elkarteko presidentea kargua utzi du eta. 2024an Durangoko Azokaren barruan

28. edizioa egin duen Euskal Denda artisautza azokako sustatzaile lez oso ezaguna da Vidal. Mireia Elkoroiribe alkateak Vidalen ibilbidea eta "udalerririari egindako ekarpen balio-tsua" nabarmendu zituen.



POLITIKAN

CARLOS GARCÍA
PP

Durangobus aurrera

Durangoko udalbatzan, 2025era onartutako aurrekontuetan onartu egin da Alderdi Popularrak udal hiri-bus zerbitzu berria martxan jartzeko aurkeztutako proposamena.

Hasiara batean, aurretik udako hiru hilabeteetan proba bat egitea aurreikusten da, Tabirako igerilekuen irekierarekin bat eginez. Ekimenak arrakasta izanez gero, urte osora zabalduko da.

DURANGOBUS ZERBITZUA URTE OSOAN ZEHAR ZABALTZEA DA NIRE ASMOA

Durangobus zerbitzua urte osoan zehar zabalduko da nire asmoa, eta bigarren fase batean Durangoko auzo guztietara. Eta, azkenik, azken helburua Abadiñoko eta Iurretako Udalak sartzea adostea da, Durangoko, Abadiñoko eta Iurretako 40.000 bizilagun baino gehiagori hiri-garraio iraunkor eta zerbitzu integrala eskaintzeko.

Garraio publiko honek batez ere adineko pertsonen mesede egingo die. Trafikoa murriztuz, airearen kalitatea hobetuko du eta onuragarria izango da bide segurtasunerako. Onurak dira denak, errentagarritasun sozial nabariagoarekin.

DURANGALDEA ASTEON

"Zornotzak 8,5eko nota lortu du bizileku lez"

ZORNOTZA Oraintsu, udalak gogobetetze-inkesta bat egin du herri-tarrek Zornotzari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko. "Zornotzarak oso balorazio ona egin dutela erakusten dute emaitzek", azaldu dute ohar bidez udal iturriek. "Zornotzak 8,5eko batez besteko nota lortu du bizileku lez, eta hobetu egin du bertako bizi kalitatea. Gainera, azterlanean parte hartu duten pertsonen %48,3k azken urteotan udalerrria nabarmen hobetu dela diote", gaineratu dute.



Solidaritate keinuak Euskadi-AESEC elkarteari

DURANGALDEA Durangaldean hainbat ekintza antolatzen dabilta besteak beste neke kronikoa, sentsibilitate kimiko anizkoitza eta fibromialgia duten pertsonen laguntzen dien elkarteari laguntzeko. Urte amaieran, Inurri Eskaut Taldeak azoka antolatu zuen, eta bertan baturiko 2.100 euroak eurei eman zizkien.

Bestalde, Durangoko Udalak eta Durango Kirolakek Spinbike maratoi solidarioa antolatu dute zapatu honetarako.



Hileko bigarren domekako azoka Abadiñon

ABADIÑO Hileko bigarren domekako azoka egingo dute Abadiñon, urtarrilaren 12an. 10:30etik 14:00etara bitartean, bertako ekoizleen produktuak erosteko aukera egongo da.

Gainera, urteko lehenengo azoka honetan, Euskaraldiaren enbaxadore izango diren herriko pertsonen aurkezpena ere egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

BERRIZKO ANTONIO DEUNA JAIK 2025



BERRIZKO ANTONIO DEUNA JAIK 2025

URTARRILAK 10

18:30 San Antonio XVIII. pilota txapelketa.
Eskuzko finalurrekoak.
Olakueta frontoian.

URTARRILAK 11

17:00 San Antonio XVIII. pilota txapelketa.
Eskuzko finalurrekoak.
Olakueta frontoian.

19:00 EJE + Vibora kontzertua 360°.
Berrizko Kultur Etxean.

URTARRILAK 16

19:00 Kalejira Olakuetan

Bentzaharreko mutiko alaiak eta Berrizko kantulagunak

Ondoren
Olakuetarrek ibilalditxo egin eta gero, Donien Atxa altxatuko dute. *Olakueta plazan.*

URTARRILAK 17

12:00 Meza San Antonio basilizan.

17:30 II. Amaraune umeentzako mendi erronka sari banaketa.
Probalekuan

19:00 Sagardotegi ibiltaria.
Odoloste jana Olakueta plazan.

19:00 San Antonio XVIII. pilota txapelketa.
Eskuzko finalak.
Olakueta frontoian



Kontzertua Ekhi Lambert

Urtarrilak 19, zapatua, 19:00etan.
San Antonio basilizan.

URTARRILAK 18

12:00 Imanol Ituño. Magoa.
Olakueta frontoian

18:00 Disko festa. Probalekuan.

22:30 Kitziki Erromeria + Adur + DJ Yiyi. Gaztetxean.

URTARRILAK 19

11:00 Eskualdeko XLIII. barazki eta fruitu erakusketa.
Probalekuan.

12:00 Baserriko txerri burualde dastatzea.
Olakueta plazan.

12:30 Meza San Antonio basilizan.

Ondoren Iremiñe - San Lorentzo dantza taldeak
Olakueta plazan.

19:00 Ekhi Lambert kontzertua.
San Antonio basilizan

URTARRILAK 20

17:00-19:00 Barrakak merkeago

19:00 Nekazaritza-olinpiadak.
Olakueta frontoian.
Ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria (amaitu arte).

URTARRILAK 26

11:30-13:00 Haurkuna BBK Fundazioa.
Haurrentzako tailerrak iraunkortasunerako.
5 - 11 urte.
Olakueta plazan.

19:00 Arizona. Antzerkia.
Berrizko Kultur Etxean.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua Indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.
www.tornilleria-amezua.com

Egunon

OKINDEGIA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA

Iturriza 21, Berriz
Tel.: 946 550 902

GAER **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Naia Zabala Azurmendi
11587 kol. zk.

Arkaz 3 - BERRIZ - 94 622 50 99
keinuoptometriazentroa.com



Nekazaritza-olinpiadak. BERRIZKO UDALA

Berrizko San Antonio jaiak hasteko prest

Asteburu honetan ekingo diote Berrizko Olakueta auzoko jaietako egitarauari. Pilota partiduekin hasiko dituzte jaiak. Nekazaritza-olinpiadak otsailaren 20an izango dira

J.G. BERRIZ

Berrizko Olakueta auzoko jaien egitaraua San Antonio XVIII. Pilota Txapelketaren finalaurrekoekin hasiko da. Urtarrilaren 10ean eta 11n jokatuko dituzte partidua. Musikari dagokionez, zapatuan Eje + Vivora taldeen kontzertua izango da, Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.

Urtarrilaren 16an, 19:00etan Olakueta plazan hasiko den kalejira bereziaren ondoren, Donien Atxa altxatuko dute. Hilaren 17an, meza egingo dute San Antonio basilizan, eta 17:30ean, probalekuan, Amaraunek udalagaz elkarlanean bultzaturiko II. Umeentzako Mendi Erronkaren sari bana-keta egingo dute. Bestalde, 19:00etan, sagardo festa eta odoloste dastatzea hasiko dira. Hilak 18, 12:00etan, Imanol Ituño magoaren emanaldia izango da Olakueta frontoian, eta 18:00etan disko festaz gozatzeko aukera izango dute probalekuan.

XLIII. Barazki eta Fruitu Era-kusketa izango da domekan, urtarrilak 19, eta 12:00etan ba-

serriko txerri burualde dastatzea hasiko da. Eguerdian, herriko Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeek dantza egingo dute Olakueta plazan. Eta arratsaldean, Ekhi Lambertentzako kontzertua izango da Antonio Deunaren basilizan.

Nekazaritza-olinpiadak

Jaietako ekitaldirik arrakastatsuenetariko bat nekazaritza-olinpiadak izaten dira. As-telehenean, hilak 20, parte hartzaileak frontoian batuko dira 19:00etan, nor baino nor gehiago aritzeko. Erroka honetan 16 urtetik gorako gazteek parte hartu dezakete, eta, jardueraren arauetara dagokienez, gehienez sei taldek eman dezakete izena.

Azkenik, hilaren 26an, 11:30etik 13:00etara bitartean, Haurkuna haurrentzako iraunkortasunerako tailerrak izango dira, 5etik 11 urtera bitarteko txikientzat. Arratsaldean, 19:00etan, Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola protagonista dituen Arizona antzezlanaren ikusteko aukera izango da Kultur Etxean.

Julia Arraudegia

Zengotitabengoa 2, behea
BERRIZ

675 187 957

Fonda taberna

Iturriza kalea, 9
48240 BERRIZ

Tel.: 946 824 009

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztiak zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45
Garaia A, BERRIZ

Tel./Fax: 946 824 143
Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

pedrojuanena

JATETXE-ERRETEGIA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA

TEL: 94.682.62.46

Estanko Etxebarria

Iturriza 14, Berriz

Tel: 94 682 79 58

express

Zengotitabengoa kalea
BERRIZ

946 824 215

Produktu ekologikoen eskaintza

Carrefour **BIO**

AB

Ibaiondo

Ferreteria · Burdindegia

geriza

mantentze-lanak eta instalazioak

SARRAILGINTZA · ATEZAIN AUTOMATIKOAK · BIDEO ZAINTZA

KABA **HIKVISION** **FERMAX**

ferreteriaibaiondo@gmail.com · Geltoki, 11 BERRIZ · 946 824 489

Eskuratu
anbotokideek dituzten
— abantaila guztiak —

30 euro ordainduta,
lortu abantaila hauek guztiak



**Hileroko
zozketa bereziak**

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2024an, 200 anbotokidek
baino gehiagok jaso dute sari bat.



**Poltsikorako
abantailak**

Deskontuak Durangaldeko
eta Euskal Herriko hainbat
komertzio eta Euskoil gasolindegian.



**Deskontuak
Anbotoko
zerbitzuetan**

Eskelak, iragarki sailkatuak,...



**Eta, gainera,
onura fiskalak**

Errenta aitorpenean,
Anbotorena lehentasunezko
jarduera delako, %30eko hobaria.

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



Okm:

batzen gaituen
distantzia

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-goagarrietan izan ezik).

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina
txartelari!



Aitor Etxarte, erdian. IXO TEATROA

"Urduritasun gozo bat dut Durangon antzezteko"

ANTZERKIA Arnatz Puertasen eta Luix Mitxelenaren Ixo Teatro konpainiak 'Eros' antzerkia taularatuko du domekan, San Agustinen, 19:00etan; Aitor Etxarte aktore durangarra Eros jainkoaren azalean sartuko da maitasun erromantikoa ardatz duen lanean

Aritz Maldonado DURANGO

Aitor Etxartek hamarkada bat darama San Agustin kulturguneko oholtzara igo barik; hain zuzen ere, profesional lez antzezten daraman denbora. Ibilbide profesionalaren zati handi bat Pabilioi 6 proiektuari lotuta pasatu du aktore durangarra, eta horrek zaildu egin du Durangoko kulturgunera joateko aukera. Domekan, Ixo Teatrok ekoiztutako *Eros* lana aurkeztuko du etxean, Durangon; Etxarte Eros jainkoaren azalean sar-

tuko da, eta, beragaz batera, Nagore Cenizo-Arroyo, Itxaso Gil, Luix Mitxelena eta Leire Ormazabal igoko dira oholtzara. **San Agustineko taulara profesio-**

"BIDE BERRI BAT AUKERATZEAN ERRATZEKO AUKERA IZAN BEHAR GENUKE, HOBETZEKO"



nal lez igoko zaren lehenengo aldia izango da domekakoa, hamar urtez lan egin eta gero.

Hasieran harrigarria dirudien arren, praktikan ez da hain deigarria: Pabilioi 6 gaz lan asko egin dut eta konpainiak ez ditu bere aretotik mugitzen bere lanak. Pandemia bat ere pasatu dugu urteotan, eta lan egin dudan beste konpainiekin ez du kointziditu. Horrek polit egin du domekakoa, hamar urteotan aktore lez

nahiko hazi naizelako eta heldutasun maila batera heldu naizelako. Lehenengo aldia orain izatea ere polita da, jakinda egingo dudana lana profesionala eta duina dela. Horrek gozatze-ko aukera emango dit, ez delako beste lehenengo aldi batzuen modukoa izango, urduri zaude-na jende ezagunaren aurrean aritzean. Urduri nago, baina urduritasun gozo bat da, zelan-bait esateko, gogotsu nagoelako antzerkigintzaren mundua zer den erakusteko Durangoko lagunei eta familiari. Horrek egin du berezi niretzat.

Desberdina da lehenengo pauso horiek edo hamar urteko ibilbidearen ostekoa erakustea.

Lasaitasun eta konfiantza jakin batez igoko naiz orain. Hasieran balitz, orduan ere oso polita izango zen, baina denontzat desberdina izango zen, bai niretzat eta baita publikoarentzat ere. Kasu honetan, etxera gozatzera nator, inolako presiorik barik, zelan lan egin dudana erakustera eta dakargun istorioa kontatzera. Uste dut, gainera, oso lan polita dela eta obra desberdin bat dela. Berbarik bako antzerkia ez da umeentzat bakarrik, antzerkia ez dira Hamlet edo Lorca bakarrik. Keinu antzerkia aspaldikoa ere bada, eta askotarikoa. Eta hori erakusteko gogo ere badut.

Keinu antzerkiko lehen lana duzu.

Taldean gauden denok, zuzendaria barne, publiko batentzat horrelako lan bat egin dugun lehenengo aldia da. Teoria gehiago edo gutxiago jaso eta landu dugu, baina jendaurreko proiektu modura aurretik egin bakoak gara. Arnaten proposamena jasota, berak gidatu gaitu, gehien ikasi eta dokumentatu dena delako. Egiteko forma, egin ahala ikasi dugu; posible da hanka-sartzeak egitea prozesuan, eta bali-teke purista batek eskuak burura eramatea kontu batzuk ikusterakoan, baina, bide berri bat hartzerakoan, esango nuke denok dugula arriskua erratzeko. Baina apurka-apurka hobetzeko aukera ere bai, eta uste dut nahiko lan duina egin dugula eta keinu an-

"EROS'-EN AZKEN EMANALDIA BILBOKO ARRIAGA ANTZOKIAN IZANGO DA, OTSAILAREN 19AN"

tzerkian dabilen mundu guztia errespetuz hartu dugula. Euskal Herrian, adibidez, Kulunka dago, maskarekin-eta lan ikaragarriak egin dituen. Pauso horiei jarraitu guran, antzerki fisikoaren mundua deskubritzen gabilta.

Antzerkian gorputza beti izan da garrantzitsua, ez testua bakarrik. Edozein obratan, testua asko lehenesten da eta gainerakoak bigarren mailara zokoratzen dira, geroago errekuiperatzeko. Kasu honetan, entseatzera testurik barik joaterakoan, gorputza bakarrik landu ahal izan dugu, eta horrek ere aukera asko ematen dizu. Gorputzagaz istorioak zelan kontatu pentsatu dugu eta beste prozesu batzuetan ikasitakoagaz birkonektatu ahal izan dugu.

Eros antzezlanean, maitasun erromantikoa da istorioaren ardatza.

Eros antzezlanean maitasun erromantikoa aitzakia bat da hartu-emanetz berba egiteko; bikote protagonistak erabiltzen da, zelanbait, uste dugulako edozein hartu-emanetan gertatzen direla horrelakoak. Pertsona berri bat ezagutzerakoan, gure bertsiorik onena erakusten ahalegintzen gara, maskarak janzten ditugu horretarako; erlazioetan ipintzen ditugun maskara horiez jarduten gara. Gaur egun, beste maitasunei buruz ere berba egin dugu, ez bakarrik bikote artekoaz; lagunentzako maitasunaz berba egin dugu, gurasoenganakoaz, gizar-teari diogun maitasunaz... Maitasunaz berba egiterakoan muga batzuk ere zabaldu dira. Istorio hau kontatzeko, klasiko bat aukeratu dugu, *Eros*, baina erlazioez berba egin dugu. Edozein bikote izan daitekeenaren istorioa kontatu dezakegu. Paraleloan, nik antzezten dudana *Eros* jainkoaren istorioa ere kontatzen du, bere hausnarketekin.

Maiatzean estreinatu zenuten lana. Pozik harreragaz?

Pabilioi 6-n estreinatu genuen, eta lanak harrera polita izan zuen. Jende nahikotxo joan zen, kultura programatzaileak asko, San Agustineko Arantza Arrazola kasu. Oso pozik irten ginen, hainbat emanaldi lotu genuelako bertan. Ordutik, Bergaran, Santurtzin eta Tolosako Topic jaialdian ere egon gara. Urtarrilaren 19an, Oiartzunen arituko gara, eta azken data Bilboko Arriagan izango da, otsailaren 19an. Konpainia berrientzat Euskal Herriko zirkuituan sartzea zein gatxa den ikusita, oso pozik gaude.

Elektronika eta gitarrak Bihotzen 'Ametsak'-en

MUSIKA Jokin Alonso elorriarra dago 'Bihotz' proiektuaren atzean; azaroan kaleratu du 'Ametsak' aurkezpen lana, eta orain zuzenean aurkezten dabil; gaur Durangoko Rugby tabernan kontzertua emango du, Durangaldeko Nekktar taldeagaz batera



'Bihotz', Ateneoko aurkezpenaren.

Aritz Maldonado DURANGO Musika sortzeko eta garatzeko bide berriak probatu guran ekin zion Jokin Alonso elorriarrak 2023ko urrian *Bihotz* proiektuari; hamar hilabeteko lan gogorren ondoren, iazko azaroan zortzi

kantako *Ametsak* diskoa kalera-tu zuen. "Beste formatu eta genero batzuetako taldeetan aritu naizen arren, oraingoan modu berriak jorratu gura izan ditut. Musika generoak nahastu eta elektronika zaporea duten basee-

kin batera gitarra elektriko eta ahots melodikoak bildu gura izan ditut", argitu du Alonsok. Hain zuzen ere, bere kasa egin ditu konposizio lanak, eta baita ekoizle eta nahasketa lanak ere. "Badakit estudio profesional batean edo audio ingeniari batek hobeto egingo zuela, baina oso pozik nago bide honetan jaso eta ikasi dudana guztiagaz", esan du.

Abenduan lagun artean eman zuen lehenengo kontzertua Ate-neon. "Lagun eta familiako kide artean proiektua aurkeztea gauza berezia eta intimoa izan zen. Erronka handia da zuzenean, kantak bakarka eta horien atzean dagoen guztia defendatzea, baina guztiz pozgarria modu berean", gaineratu du.

Gaur, barikua, Bihotzek kontzertua emango du Nekktar taldeagaz batera, Durangoko Rugby tabernan; 22:30ean hasiko da. Gerora, Igorren, Gasteizen eta Abadiñon ere emango ditu kontzertuak



'War baby'. YLLANA

Yllana konpainiak Arriola bete batean aurkeztuko du 'War baby'

ANTZERKIA Beste behin ere, Yllana konpainia sarrera guztiak salduta igoko da Elorrioko Arriolako oholtzara

A. M. ELORRIO

Gaur, barikua, Yllana konpainia entzutetsuak *War baby* antzezlana aurkeztuko du Elorrioko Arriolan. Berezkoa duen estilo komikoan, soldaduen errekrutatzeko gune batean kokatzen den satira antibelazista dakarte besapean. "Haur gerrazale baten agindupean, pertsonaiek hainbat egoera katramilatsuri aurre egin beharko diote, boterearen eta gerraren izenean", azaldu dute. Antzezlana honetan, Fidel Fernández, Juan Fran Dorado, Jony Elias, Raul Cano eta Luis Cao aktoreek parte hartzen dute.

Yllanak 2023ko azaroan estreinatu zuen *War baby*, eta ordutik dozenaka emanaldi eman ditu. Ohikoa duen moduan, konpainiak egungo testuingurua islatu gura du bere lanen bitartez, eta kasu honetan gerraren zentzugabezia erakutsi gura du umorez beteriko gag ikusgarrien bitartez. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera guztiak salduta daude.

Yllana konpainiak hiru hamar-kada baino gehiago daramatza antzerkigintzan. Ibilbide horretan, hainbat Max sari jaso dute eta 48 herrialde baino gehiagotan egin dituzte emanaldiak.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Urte berri on

Tabakoa utzi. Gutxiago edango dut. Kirola egiten hasiko naiz. Aurten spinning, total body, yoga, hitt edo stretching. Astean hirutan gutxienez kirola. Mendi gehiago. Eskalatzeko hasi. Pisua jaitsi. Gimnasia! Kolesterola zaindu. Parranda gutxiago. Irakurtzen hasi. Gehiago irakurri. Idazteari ekin. Eguneroko bat eduki. Kalera gehiago irten. Lagunekin gehiago egon. Bigarren umea. Etxean denbora pasatu. Astean behin izarak garbitu. Eguneroko ohea egin. Familiarekin egon. Etxe bat erosi. Gurasoen etxetik alde egin. Zorrak kitatu. Aurreztu, aurten bai! Itsulapiko batean egunean bi euro edo soberan ditudan txanponak sartu. Itsulapikoa erosi. Bidaia bat egin. Gehiago bidaiatu. Ahal den urrunen bidaiatu. Kapritxo bat edo beste. Kapritxo gastronomikoa. Astelehenetik ostegunera etxean afaldu, edo astelehenetik asteazkenera, eta baita domeketan ere. Asteburuan egun bat bakarrik

"AZUKREA KANPORA, FRUTA BARRURA. KAFE GUTXIAGO, INFUSIO GEHIAGO. IKASTEN HASIKO NAIZ"

kalean afaltzeko. Zaintzen hasiko naiz. Domeketan aste osoko jatekoak prestatu, batch cooking. Azukrea kanpora, fruta barrura. Kafe gutxiago, infusio gehiago. Ikasten hasiko naiz. Master bat. Bigarren karrera. Oposizioak. Aurten ikasketarik gabeko urtea, relax. Dena lehenengoan

gainditu. Ingelesean matrikulatu. Alemana ikasi, edo frantsesa. Proiektu pertsonal berriari ekin. Josten ikasi. Zeramika. Instrumentu bat jo: trikitia, gitarra, bateria, pianoa. Musika talde bat sortu. Kontzertu gehiago eman. Ohiturak aldatu. Niretzako denbora hartu. Autozaintza gehiago. Mugikor gutxiago, pantaila gutxiago. WhatsApp murriztu, deiak ugaritu. Atsedena. Bikotea bilatu. Bikotearekin amaitu. Meditatzen hasi. Mindfulness. Lana bilatu. Lan hobeago bat bilatu. Zoriontsu bizi.

Anbotorako idatziak aurrez prestatu, edo gutxienez pentsatu. Burura datozkidan ideiak apuntatu, zerrendatu, idatzi. Zezenak ez nazala berriz harrapatu. Hala izaten dira batzuetan, eta batzuentzat, hasierak eta erak. Erronka pertsonalez beteriko gurariak. Urte berri honetan zerrendatik zenbat? Urtez urte zenbat esan, eta zenbat bete? Asmo berri on!

Landakon eraikiko dute Kiroleneren egoitza berria

KIROL-HEZKUNTZA Kiroleneren eraikin berria Arripauseta auzuneko etxebizitza berrien eta Open gimnasioa zenaren arteko orubean egingo dute. Hurrengo pausoa lurak Jaurlaritzari lagatzeko hitzarmena sinatzea da. Lanak 2027an hasita dute helburu



Durango Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, atzo, Kirolene eraikiko den orubean.

Joseba Derteano DURANGO

Durango Kirolene kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoaren egoitza berria non kokatuko den iragarri dute asteon: Landakon eraikiko dute, Arripauseta auzuneko etxebizitza berrien eta Open gimnasioa zenaren arteko orubean. Lursail horrek 3.484 metro karratu ditu. Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak Landakako orube hori bisitatu zuten eguean, eta han eman zituzten zehaztapenak.

Iazko urte amaieran, Kirolene Tabiran egitea baztertu zuten, espazio falta argudiatuta. Landakon, oster, tokirik "onena" bilatu diotela adierazi zuen Elkoroiribe alkateak, "bai kokapenagaitik, eta baita espazioagaitik ere". "Durangoko kirolgunerik handiena edo garrantzitsuena Landakokoa da. Bertan ditugu kiroldegia, errugbi zelaia, tenisa, padela... Beraz, Kirolene ezin da kokaleku hobe batean egon", adierazi zuen.

Pedrosa sailburuak Kiroleneren moduko zentroen "garrantzia" azpimarratu zuen: "Gazte asko-

rentzat euren bizi proiektua garatzeko behar-beharrezkoa den aukera bat da".

Ibilbide-orria

Kokalekua erabakita, Durango Udalaren eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko lagapen-hitzarmena sinatzea izango da hurrengo pausoa. Jaurlaritzari lurra lagatzeko hitzarmena aurtengo apirilean gauzatzeari aurreikusten dute. Paraleloki, Kirolenek behar dituzten instalakuntza espezifikoak zehazten jarraituko dute. "Lantalde bat aspalditik dabil buru-belarri horretan lanean", gaineratu zuen Pedrosak.

Ondoren, aurreproiektua eta proiektua bera idatziko dituzte. Hori guzti hori kontuan hartuta, "lanak 2027an martxan izatea" dute helburu, Elkoroiriberen esanetan.

**KIROLENEREN
EGOITZA BERRIA
ERAIKIKO DEN
ORUBEAK 3.484
METRO KARRATU DITU**

Goi mailako puntistak Elorrioko txapelketan

ZESTA-PUNTA Gaur arratsaldean lehenengo finalistak erabakiko dira. Emakumeetan Helena Barrenetxea durangarra da protagonistetariko bat. Bigarren finalistak 'Berriatua Master Series' txapelketako txapeldunak izango dira. Finala domeka eguerdian da



Helena Barrenetxea eta Maialen Aldazabal, partidu batean. ERAMAN JAI ALAI

J.D. ELORRIO

Iaz hasitako bideari jarraituta, Elorrioko Hori Hori eta Durango Durango Jai Alai pilota klubek txapelketa berri bat an-

tolatu dute Elorrioren zesta-punta berpizteko. Elorrio Neguko I. Zesta Txapelketa izenagaz, gaur eta domekan jokatu da, Hilario Azkarate pilotalekuan. Sa-

rrera doakoa da. Emakumeen elite mailan eta gizonen gazte mailan jokatu da.

Gaur, 19:00etan, finalerdiak izango dira. Emakumeetan Helena Barrenetxea durangarra eta Maialen Aldazabalek Lur Lejardiren eta Erika Mugartegiren kontra jokatu dute. Irabazleek Berriatua Master Serieseko txapeldunen kontra jokatu dute finala, domekan, 12:00etan.

Gizonen finalerdia honako da: Eñaut Astelarra eta Eneko Beale Luken Bilbaoren eta Xuban Galdosen aurka. Irabazleek finalen zain dituzte Markel Erkiaga eta Kirmen Etxaburu.

Faben Ituarte Gipuzkoako txapela jantzi du buruz buru

PILOTA Atxondarrak senior mailako txapelketa irabazi zuen Atano III.a pilotalekuan jokaturako partiduan

J.D. ATXONDO

Faben Ituarte atxondarrak goian hasi du urtea. Joan zen asteburuan, Gipuzkoako buruz buruko txapelketa irabazi zuen senior mailan, Eneko Gorostidiri 22-4 irabazita. Ituarte bizkaitarra den arren, Lazkaoko Lapke klubean jokatzen du eta horregaitik lehiatzen du Gipuzkoako txapelketa.

Finalean jaun eta jabe

Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokaturako finalean, pilotari atxondarrak partiduko lehenengo minututik markatu zuen norgehiagokako erritmoa. Eskuin-ekzer, bizi-bizi mugitu zuen pilota eta ez zion aukera txikienik ere utzi Gorostidi abaltzisketarrari. Gainera, aukera zuenetan oso ondo bilatu zituen anguloak, bai zabalean eta baita txokotan ere. Partidua 22-04



Ituarte txapela jantzita.

irabazi eta Gipuzkoako txapela Durangaldera ekarri zuen.

Oraingo hau ez da Gipuzkoako txapelketa irabazten duen lehenengo aldia. 2002an ere jantzi zuen txapela, baina gazte mailan. Orduan ere jokoan jipoitu egin zuen aurkaria: 22-6.

Iker Trigo Galiziako Rías Baixas taldera batu da

TXIRRINDULARITZA Bere ibilbideari norabide berri bat emateko asmoz, 23 urteko zornotzarra Laboral Kutxatik Galiziako taldera joan da; talde biak afizionatu mailakoak dira. Taldez aldatu arren, bere helburu nagusia ez da aldatu: profesioaletara heltzea

Joseba Derteano ZORNOTZA

Iker Trigo txirrindulariak taldea aldatu du. Azken denboraldi bietan bere etxe izan duen Laboral Kutxatik —Euskaltel Euskadiren filiala— Galiziako Vigo-Rías Baixas taldera joan da. "Giroz aldatu gura nuen. Rías Baixas ondo antolatutako taldea dela ikusten da. Gainera, oso egutegi ona du eta hori garrantzitsua da denboraldia ondo planifikatzeko. Bila nabilen baldintzak betetzen ditu eta pozik nago", adierazi du 23 urteko zornotzarrek. Euskaltel Euskadiren atzerik irten den arren, Trigok ez dio profesioaletara heltzeari uko egiten. "Nire helburu nagusiak profesioaletara heltzea izaten jarraitzen du", esan du. Horregaz batera, bere talde berrian txirrindularitzaz "gozatzen" jarraitu gura du.

Proiektuko "liderra"

Bere aldetik, Vigo Rías Baixas taldea pozik dago fitxaketagaz. "Fitxaketa garrantzitsua da.



Trigo, iazko lasterketa batean.

Gorenera heldu gura duen txirrindularia da eta proiektuko lider izateko etorri da", azaldu dute ohar batean.

Trigo eskalatzailea da batez ere, eta iaz hainbat postu azpimarragarri lortu zuen. Esatera-

ko, lehenengo euskalduna izan da Balentziagaren oroimenezko lasterketan, afizionatu mailako lasterketarik prestigiotsuenetarikoa. Horrez gainera, Nafarroako Itzulia bigarren tokian amaitu zuen.



Alpinoko kideak Urteberri egunean, Urkiolagirren. ALPINO

Mendi zeharkaldiak, Alpinoren urteko eskaintzaren barruan

MENDIA Uztailean GR 11 ibilbideko zortzi etapa egingo dituzte; abuztuan Lleidako Pirinioetan ibiliko dira

J.D. DURANGO

Urtea hasteagaz batera, Alpino Tabira mendi klubak prest du aurtengo egutegia. Eskaintza zabalaren barruan, mendi zeharkaldi bi egingo dituzte udan. Uztailean GR 11 ibilbideko zortzi etapa kateatuko dituzte Hondarribia eta Selva de Oza artean. Abuzturako Lleidako Pirinotik egiten den Porta del Cel lau eguneko zeharkaldi bat egitea aurreikusitako dute. Parte hartu gura dutenei euren interesa jakinarazteko eskatu diete, ekimena antolatzen joateko.

Bizkaiko Bira

Bestelakoan, iaz Durangotik hasi zuten Bizkaiko Biragaz —GR 123— jarraituko dute aurtentzen. Hurrengo etapa urtarilaren 19ko domekan izango da. Egun horretan, Bakio eta Plentzia batuko dituzte, 22 kilometroko ibilbidean. Parte hartzeko izen ematea hasita dago, hilaren 16ra arte. Alpinoren bulegoan eta bere ohiko ordutegian egin daiteke: martitzenetan eta eguenean, 19:00etatik 20:00etara. Informazio guztia www.alpino-ta-bira.org webgunean aurkitu daiteke.



JOKALDIA

ALFONSO ARROIO MONESTERIO KIROL KAZETARIA

Marshall Taylor

Historia ziklikoa dela diote eta sinestezina dirudien arren, inboluzio betean bizi gara. Gure hizkuntza atzeraka doa gazteen artean, eskuin-muturra Europa osoan goraka doa, arrazismoa, homofobia, gerrak, Palestinako genozidioa, Trump, Milei, Meloni, Orban, Abascal, Le Pen, Farage... negar gura ematen du mundu honek. Potentzia handietako baten lema eramateko ardura pertsonaje arriskutsu bati eman diote, Donald Trumpi. Ziklismoarekin harremana izan zuen bigarren aldiz AEBetako presidentea izango denak. 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hasieran, "Tour of Trump" lasterketa antolatu zuen Frantziako Tourrari lehia egiteko asmoarekin. Bere jostailuak bi urte iraun zuen bakarrik (ondorengo urteetan Tour de DuPont izena hartu zuen). Dag Otto Lauritzen eta Raul Alcala agertzen dira palmaresean garaile moduan. Urte horietan ezagutzera eman zen pertsonaje beldurgarri hau. Jakin beza XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran bazela

"80KO HAMARKADAREN AMAIERAN 'TOUR OF TRUMP' ANTOLATU ZUEN FRANTZIAKO TOUERRARI LEHIA EGITEKO"

"JAKIN BEZA XIX. MENDE BUKAERAN BAZELA MUNDUKO TXAPELDUN AFROAMERIKAR BAT, INDIANAPOLISEN JAI OA"

munduko txapeldun afroamerikar bat. Indianapolisen jaio zen, 1878an, eta 18 urterekin distantzia laburreko zazpi munduko marka lortu zituen New Yorkeko belodromoan. 21 urterekin munduko txapeldun bilakatu zen. Arrazakeria pairatu behar izan zuen, denetik egin zioten. AEBetan lasterketa askotan parte hartzea debekatu zioten, eta parte hartzen uzten zioten batzuetan, ikusleek iltzeak edo ur hotza botatzen zioten. Ondorioz, Europarako bidea hartu zuen. Frantziako belodromoetan, sona hartu zuen. Etxera bueltan, 30.000 dolarreko irabaziekin eta 32 urterekin ziklismoa utzi zuen. Hogei urteren buruan diru hori guztia bukatu zuen, egingako inbertsioek huts egin ostean. Limosnetatik bizi eta 53 urterekin Chicagon hil zen. Urteetara, zale batzuek estatua bana jarri zuten Worcesterren, Massachusettsen eta bere jaioterrian, Indianapolisen. Gaur egun, arrazakeria gehien pairatu zuen hirian, bertako belodromoak bere izena darama: Marshall Taylor.

GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 10 BARIKUA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 11 ZAPATUA

09:00-09:00

Irigoin, Bixente Kapanaga 3 - Iurretza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 12 DOMEKA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 13 ASTELEHENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 14 MARTITZENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 15 EGUAZTENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 16 EGUENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ESKELAK



Zorionak, maitiak! Intzan 16. urtebetetzea, Iratin 13.a eta aitaxona ospatu doguz urtea hasi eta segituan. Jarraitu holan gu alaitzen, pila-pila maite zaituegu! Inhar eta amabxo.



Urtero legez, Azkorbebeitia familiakook Urkiolamendira igo ginen Errege egunez. Asuntzan mokadutxo bat jan, eta Urkiolan txitxiburduntzia egin genuen. Aurten, gainera, 'Txabolakoa' -n ezpatadantza egin dugu Jose Antonio Azkorbebeitia 'Azkorbe' -ren omenez. Egun ederra guretzat. Gora Azkorbetarrok!

GOZATU GOZOTEGIA



Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

g gozatu gozotegia

ZORIONTEZKO HIRU BIDE

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Zorionak, **Maren (1004.alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzekeo txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

ESKELAK



ESKELAK ANBOTON

94.681.65.58 / anboto@anboto.org
/ www.anboto.org/eskelak

► Banakakoa

Paperean edo webgunean: 75

Anbotokideentzako: 65

Paperean eta webgunean: 115

Anbotokideentzako: 105

► Bikoitza

Paperean edo webgunean: 110

Anbotokideentzako: 100

Paperean eta webgunean: 150

Anbotokideentzako: 130

URTEURRENA

Egoitz
Uberuaga Aranburu

1986/1/13 - 2019/1/13



6 urte pasa dira, baina gure
bihotzean irribarrez bizi zara.
Asko maite zaitugu.

Etxekoak.

Mallabian, 2025eko urtarrilaren 10ean

ESKELA

Conchi
Trueba Crespo

Javier Iraugiren alarguna



2025eko urtarrilaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

Zure pozak, bizitzeko goguek
ta alaitasunek...
Karrantzan, litorretan eta Durengon
bizirik jarraituko dabe.

Ijorretako lagunak.

ESKELA

Esperanza Beitia
ArietaleanizbeaskoaGOIAN BEGO
Eusebio Arbuluren alarguna

Elorrioren hil zan, 2024ko abenduaren 29an, 89 urte ebazala,
Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

Gure bihotzetan izango zaitugu betirako.

Seme-alabak, bilobak eta gainerako senideak.

Elorrioren, 2024ko abenduaren 30ean

Mariasun Landa
Iurretan

URTARRILAK 23

18:30 Mariasun Landarekin berbaldia

Elkarriketatzailerak:

PERU MAGDALENA ARRIAGA

Hizkuntza: Euskaraz

Aldez aurretik izena emanda



Ekiztaren izena emateko

94 681 27 26

bibliobekakoekintzak@iurreta.eus

WhatsApp edo Telegramaz

688 86 37 36

URTARRILAK 31

"TAXIA PARADISURA"

Haurrentzako ipuin-kontalaria

Hizkuntza: euskara

Ordua: 18:00

Adina: 4 urtetik gorako haurrak
+ heldu laguntzaileak

"TAXIA PARADISURA"

Helduentzako abozko narrazioa

Hizkuntza: euskara

Ordua: 19:00

Kontalaria
MIREIA DELGADO EXPOSITO

Aldez aurretik izena emanda

Iurreta
Euskararen
Mundua

Pio Pio, eramateko janaria.

Arripuko tortilla aukera ezberdinak.

Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera.

Baserriko ogia (Panarra, Otxandiko baserri ogia).

BI-623, 48213 Izurtza

BI-623, 48210 Otxandio

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 10

ABADIÑO Erakusketa
EHUko ilustrazio Zientifikoko Masterreko ikasleek lanak. *Ezkurdi erakustaretoan, urtarrilaren 19ra bitartean.*

BERRIZ Antzerkia
'Mr Bo' (Marie de Jongh konpainia). *Kultur Etxean, 17:00etan.*

DURANGO Erakusketa
'Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea' erakusketa. *Arte eta Historia Museoa, otsailaren 2ra bitartean.*

DURANGO Berbaldia
Durangoko Gaztetxearen proiektuaren azalpena. *Otamotzena auzogunean, 17:30ean.*

ELORRIO Antzerkia
'War Baby' (Yllana konpainia). *Arriola antzokian, 20:00etan.*

IURRETA Kontzertua
Iren Uka taldea. *Korta tabernan, 20:30ean.*

ZAPATUA 11

BERRIZ Musika
Vibora + Eje taldeak. *Kultur Etxean, 19:00etan.*

DURANGO Bisita Gidatua
'Nestor Basterretxea' bisita gidatua.

Arte eta Historia Museoa, 13:00etan (euskaraz).

DURANGO Maratoia
Spinithon spin bike maratoi solidarioa. Neke kronikoaren sindromea, sentsibilitate kimiko anizkoitza, fibromialgia eta sentsibilitate elektromagnetikoa duten gaixoen elkartearantz (SFC-SQM-Euskadi-AESEC) izango da batzen duten dirua. *Landako Gunean, 10:00etatik 13:00era. Izena ematea, bost euro.*

IURRETA Irteera
Bergarara bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte. *lurreta, 10:00etan.*

IURRETA Kontzertua
Benetako Rock Festa Umbilika proyecto-ren eskutik. *Korta tabernan, 20:00etan.*

DOMEKA 12

DURANGO Antzerkia
'Eros' (Aitor Etxarte). *San Agustin kulturugunean, 19:00etan.*

IURRETA Irteera
Loiura bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte. *lurretan, 10:00etan.*

MARTITZENA 14

DURANGO Bisita Gidatua
'Nestor Basterretxea' bisita gidatua.

Arte eta Historia Museoa, 18:00etan (euskaraz).

DURANGO Tailerra
'Familia musketan' tailerra, Rebeca Díazen eskutik. *Otamotzena auzogunean, 18:00etan.*

EGUENA 16

DURANGO Berbaldia
'El Grupo Gaur: Néstor Basterretxea y la vanguardia vasca' berbaldia. Hizlaria: Aitor Aurrekoetxea EHUko filosofia irakaslea. *Arte eta Historia Museoa, 19:00etan.*

BARIKUA 17

GARAI San Anton Eguna
Meza. Ondoren, San Anton Eguneko erremata. *Elizabarrin, 12:00etan.*

ZORNOTZA Antzerkia
'Emakume baten borroka eta metamorfosia'. *Zornotza Aretoa, 20:00etan.*

ZAPATUA 18

ABADIÑO Kontzertua
Ainke taldea. *Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.*

BERRIZ Ate irekiak
Umerri eskola aktiboak ate irekien jardunaldia antolatuta du.

Elizondo plaza 2an, 11:00etatik 13:00etara.

DURANGO Antzerkia
'Kortxoaren dilema' (Tartean Teatro konpainia). *San Agustin kulturugunean, 19:00etan.*

DOMEKA 19

ABADIÑO Kontzertua
Izaki Gardenak taldea. *Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.*

EGUAZTENA 22

ABADIÑO Ipuinak
Ane Gebara ipuin kontalaria. 4-8 ume bitarteko umeei zuzendutako saioa. *Mediatekan, 17:00etan.*

EGUENA 23

DURANGO Berbaldia
'Nestor Basterretxea. Artelana eta bizitza' berbaldia. Hizlaria: Andere Larrinaga EHUko Artearen Historiako irakaslea. *Arte eta Historia Museoa, 19:00etan.*

IURRETA Berbaldia
Mariasun Landagaz berbaldia, Peru Magdalenak gidatuta. *Herri Bibliotekan, 18:30ean.*

ZINEMA

BERRIZ

ARETOAXXX

Conclave
Domeka 12: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Hereje

Barikua 10: 18:00, 20:30.
Zapatua 11: 19:15, 21:30.
Domeka 12: 19:30.
Astelehena 13: 17:45, 20:15.
Martitzena 14: 17:45, 20:15.
Eguaztena 15:19:00

Ciudad de asfalto

Barikua 10: 18:00, 20:30.
Zapatua 11: 19:15, 21:30.
Domeka 12: 19:30.
Astelehena 13: 17:45, 20:15.
Martitzena 14: 17:45, 20:15.

Desmontando un elefante

Barikua 10: 18:00, 20:30.
Zapatua 11: 19:30, 21:30.
Domeka 12: 19:30.
Astelehena 13: 18:00, 20:15.
Martitzena 14: 18:00, 20:15.
Eguaztena 15: 19:00.

Sonic 3

Zapatua 11: 17:00.
Domeka 12: 17:00.

Mufasa: El rey león

Zapatua 11: 17:00.
Domeka 12: 17:00.

Niko. Más allá de la aurora boreal

Zapatua 11: 17:00.
Domeka 12: 17:00.

Don Giovanni (opera)

Eguaztena 15: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Polvo serán

Zapatua 11: 20:00.
Domeka 12: 20:00.
Astelehena 13: 20:00.

Superklaus

Domeka 12: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Emilia Pérez

Zapatua 11: 20:00.
Domeka 12: 20:00.
Astelehena 13: 20:15.

Sonic 3

Zapatua 11: 17:00.
Domeka 12: 17:00.

Totem

Martitzena 14: 19:00.

ZORNOTZA Dantza
Kukai dantza taldeak sortutako azken ikuskizuna ikusteko aukera egongo da gaur Zornotzan: *Txalaparta*. Jesús Rubio Gamo koreografo madrildarraren eskutik abiatu dira abentura berri honetan. *Urtarrilak 10, barikua, Zornotza Aretoa, 20:00etan.*





LAU-HORTZA

MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

#Ama

Marmitakoa egin gura dudala, *maritxu.eus* atarian sartu eta arin eta erraz. Itxura bada aldatu gura dudana betieder adi-tuaren esku jarri; motorrari olio aldatzeko, hozkailua konpontzeko, kakorratzean aritzeko, makillatzen ikasteko, aste-burua non eta zelan pasatu... hamaika aholku, makina bat kontu eta gehiago aurkituko ditugu KLIK batean.

Zorionekoak omen gara, autonomoak, gure kaxa edozer egiteko kapaz egingo gaituenak. Ostera, nire barruak beste zera bat diost: gero eta gutxiago erabakitzen dugula, eragileen aroan bizi garela, euren esanetara eta tsunamia bailitzan eramaten gaituela sasoiaren sa-soiko gustatzen zait gehien jaso dituenak. Joera edo tendentzia markatzen dutenek euren iritziak sareetan sakabanatzea egin dute lanbide. Egun, oso zabal dabilen ogibidea da. Gatx egiten zait aukeratzea bat edo beste aukeratzekotan. Konfiantza kontua izango da edo beste denbora batekoa naizela ere bai. Egia esango dizuet, nik ere izan ditut nire influencer edo eragile propioak: lagun iritzia janzteko orduan, barrua askatzeko lagun minaren belarriak... maitagarriena; #ama. Sarritan gogoratzen dut amak domekero egiten zuen zopa.

Horiek dira nire eragileak, oso kontuan hartzen ditut nire inguruak, eta ez pantailaren bestaldean dauden arrotzak.

AKUILUA

"Alde humanotik oso aberasgarria izan da"

AINHOA GAZTELUITURRI ORTUOSTE ERIZAINA

Ainhoa Gazteluiturri (Abadiño, 1975) Retalhuleuko (Guatemala) San Felipe ospitalean egon da lanean kirofanoko erizain lez, Denok Osasunaren Alde (DOA) erakundearen eskutik

A. Basauri DURANGO

Ainhoa Gazteluiturrik Galdakaoko ospitalean ezagutu zuen Donostiako DOA gobernuz kanpoko erakundea, kirofanoko erizain lez lan egiten zuela. Ordutik 20 urtetik gora pasatu dira. Iazko azaroaren 4tik 25era, Guatemalan lan egiteko aukera izan zuen, herrialdearen hego-mendebaldean dagoen Retalhuleu herrian.

Zein izan da zure lana Guatemalan?

Emakumeen bizi kalitatea hobetzeko ginekologiako operazioak (iztaiko herniak, miomak, histerektomia...) egin ditugu, han egon garen denboran errekupe-ratio egokia bermatzeko aukera ematen duten oinarrizko operazioak. Guatemalan, erditzeak, haurdunaldiak eta umearen lehenengo urteko zaintza baino ez dira bermatzen. Kirurgia orokorreko beste talde bat ere joan zen. Bakoitzean, anestesista bat, mediku bi eta erizain bi joan ginen.

DOA erakundeagaz zeharkako lana egin duzu orain arte.

DOAk urtero kanpaina bi egiten ditu Guatemalan, eta Bolivian beste bat. Bakoitzaren atzean, urte osoko lan handia dago. Galdakaoko operazio geletan



**"ETENGABE
ESKERRAK EMATEN
ZIZKIGUTEN
GURE ESKUEN
DOHAINENGAITIK"**

erabili ez den materiala batu eta esterilizatzen dute, bigarren bizi bat emateko. Horretan jardun dut. Oso barneratuta dagoen lana da. Konturatu barik, galdu ezin den inertzia lortu da. **Iaz, lehenengoz, lehenengo lerroan lan egiteko aukera sortu zitzaizun.**

Zelako esperientzia izan zen?

Itzela, oso aberasgarria. Orain 25 urte lanean hasi nintzenean Euskal Herrian topatu nituen antzerako operazio gelak topatu ditut, eta dena antolatuta eraman dugunez, eroso sentitu naiz lanean. Baina hemen gertatzen ez diren ezustekoak sortzen dira. Asko zaindu behar dira baliabideak, ezinbestean. Alde humanotik oso aberasgarria izan da. Talka handia izan zen, premia handiak dituzte han.

Zein egoera bizi dute Retalhuleun?

Munduko Bankuaren 2023ko datuen arabera, gizartearen %60 pobrezian bizi da, eta %25 pobrezia larrian. Guk errekurtsorik bako herritarrei eman diegu arreta. Urtero, dauden premien arabera erabakitzen dute zein espezialitatetako taldea doan lan egitera.

Errepikatuko zenuke esperientzia?

Bai. Dena dela, antolakuntzan dabiltzanei erreleboa hartuko diet. Egunerokoan baturikoa zenbatu, Galdakaoko esterilizazio zerbitzuagaz hartu-emanen jarri, estimazioak egin, jendea zuzendu... Koordinazio lan horretaz arduratuko naiz. **Zein ekarpen egin dizu esperientzia honek? Gomendatuko zenuke?**

Bai. Duguna baloratzeko balio izan dit. Etengabe eskerrak ematen zizkiguten gure eskuen dohainengaitik, eta horrek irauli egiten dizu barrua. Nire eskuak baliatzeko aukera izan dut euren bizimodua hobetzeko, eta oso eskertuta nago horregaitik. Bizitzan sorturiko esperientzia berriei baietz esan behar zaie beti, txarto atera arren. Beti dago ikasketa bat, beti da aberasgarria.

ATE IREKIAK

Urtarrilak 15 17:00etan
Urtarrilak 18 11:00etan

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi. hezi. hegan egin

AURREMATRIKULAZIOA
Otsailaren 3tik 14ra

landakoeskola.org · 944 280 174

